



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2010eko EKAINA

**FILOSOFIAREN
HISTORIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JUNIO 2010

**HISTORIA DE LA
FILOSOFÍA**

Azterketa honek bi aukera ditu. Horietako bati erantzun behar duzu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

A AUKERA

“Ama, filosofiaren gazteluaz beraz jabetu zara. Hitzak besterik ez zaizkizu falta izan *Hortensius* izeneko liburuan, filosofiaren alde eta gorespenerako liburu hartan, Tullius-ek bezala aditzera emateko: *Hara nola guztiek, ez filosofoek hain zuzen, baina bai eztabaidarako prest daudenek, nahi bezala bizi direnak zoriontsu direla diote. Oker handia! Komeni ez dena nahi izatea zoritxar ezin handiagoa baita. Nahi dena ez lortzea ez da komeni ez dena lortzea bezain txarra. Gaitz handiago dakartza borondatearen txarkeriak, zorteak ondasun baino”.*

Agustin Hiponakoa: *Bizitza Zoriontsuaz*

GALDERAK

1. MULTZOA. TESTUAREN ULERMENA

1.1 Laburtu pasartea, haren ideiak eta ideien arteko loturak errespetatuz. (1 puntu).

1.2 Azaldu azpimarraturiko terminoak. (1 puntu) (50-75 hitz termino bakoitzeko).

1.3 Testuaren tesia kontuan hartuta (desiraren eta zoriontasunaren arteko lotura estua dela, hain zuzen), gara ezazu disertazio labur bat, gutxienez tesiaren aldeko argudio bat eta haren kontrako beste argudio bat eman. Ondoren, eman ezazu zure tesiaren inguruko hausnarketa. (3 puntu) (200-300 hitz).

2. MULTZOA. EDUKIAK ETA TESTUINGURUKETA

2.1 Azal ezazu, laburki, Agustin Hiponakoarentzat gaitza zer den (1,5 puntu). (Gehienez: 150 hitz).

2.2 Agustinen historiaren filosofia: *Jainkoaren Hiria* (1,5 puntu). (Gehienez: 150 hitz).

2.3 Ezagutza: arrazoimena eta fedea Agustinen eta Tomasen obran (2 puntu). (Gehienez: 250 hitz).



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2010eko EKAINA

**FILOSOFIAREN
HISTORIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JUNIO 2010

**HISTORIA DE LA
FILOSOFÍA**

B AUKERA

“Maixuak ikasleari irakasten diona doktorearen zientzia da, engainatzen ez ba dio, eta hori Jainkoaz esatea ez da zilegi. Jainkoak ezarri ditu gure baitan lehen printzipioen ezagutza, bera izan baita gure izaeraren egilea. Lehen printzipio horiek, beraz, jainkozko jakinduriaren barnean daude. Ondorioz, horien aurka dagoen guztia Jainkozko jakinduriaren aurka dago. Hori ez da Jainkoaren bidea. Eta hortik, goi-agerkunde bidez ditugun egiek ezin dute ezagutza naturalaren aurkakoak izan”.

Tomas Akinokoa: *Summa contra gentes*

GALDERAK

1. MULTZOA. TESTUAREN ULERMENA

1.1 Laburtu pasartea, haren ideiak eta ideien arteko loturak errespetatuz. 1 (puntu).

1.2 Azaldu azpimarraturiko terminoak. (1 puntu) (50-75 hitz termino bakoitzeko).

1.3 “Jainkoak ezarri ditu gure baitan lehen printzipioen ezagutza, bera izan baita gure izaeraren egilea” tesia kontuan hartuta, gara ezazu disertazio labur bat, gutxienez tesiaren aldeko argudio bat eta haren kontrako beste argudio bat emanez. Ondoren, eman ezazu zure tesiaren inguruko hausnarketa. (3 puntu) (200-300 hitz).

2. MULTZOA. EDUKIAK ETA TESTUINGURUKETA

2.1 Deskriba ezazu mugimenduan oinarrituriko Jainkoaren existentziaren froga tomista (Tomas Akinokoarena). (1,5 puntu) (Gehienez: 150 hitz).

2.2 Lege Naturala Tomas Akinokoaren pentsamenduan (1,5 puntu). (Gehienez: 150 hitz).

2.3 Jainkoaren existentzia Agustinen eta Tomasen pentsamenduan (2 puntu). (Gehienez: 250 hitz).